Zaindariak eta harrera langileak, zerbitzu guztia lanaldi osoan.

*2. atala.*— Lehen esandako funtsezko zerbitzuak grebarako eskubideaz baliatzen ez diren langileek beteko dituzte lehentasunez. Oraingoan Enpresako Zuzendaritzari dagokio langile horien eginkizunak zehaztea, beti ere, aurreko atalean eta indarreango legeetan zehazten diren mugei men eginez. Funtsezko zerbitzuak bete behar dituzten langileak izendatzerakoan, ahal den neurrian, iare utziko dira Grebarako Batzordekoak.

*3. atala.*— Aurreko atalean zehaztutako funtsezko zerbitzuei eusteko beharrezko diren langileen lan-geldialdi edo —eragozpenak legez kanpokotzat joko dira, martxoaren 4eko 17/1977 Erregeren Dekretu Legearen 16.1 atalean agindutakoaren ondorioetarako eta Langileen Estatutoari buruzko martxoaren 10eko 8/1980 Legeari atxikiz.

*4. atala.*— Aurreko atalean agindutakoak ez du mugapenik ekarriko, ez grebari buruzko arauek egoera horretan dauden langileei aitortzen dizkieten eskubideekiko ez eta grebaren zio diren eskabideen izapideekiko eta ondorioekiko ere.

*5. atala.*— Dekretu honen gai diren enpresa eta langileei honako hau ohartarazten zeie: bertan ezartzen diren zerbitzuak ez betetzeak, bidezko izan daitezen auzi eta administrazio ekintzez baliatzera beharتuko duela Agintaritza hau.

*6. atala.*— Dekretu honen bidez sendetsi egiten da Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuak 1991ko maiatzaren 6an hartutako erabakia.

*7. atala.*— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunean bertan hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1991ko maiatzak 7.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua,
MARTIN AUZMENDI AIERBE.

Los guardas y personal de recepción, la totalidad del servicio durante toda la jornada.

*Artículo 2.*— Los servicios esenciales antedichos, se prestarán preferentemente por el personal que no ejercite el derecho de huelga, correspondiendo en este caso a la Dirección de la Empresa la asignación de funciones al personal correspondiente, respetando en todo caso las limitaciones contenidas en el artículo 1 del presente Decreto y en la legislación vigente. En tal designación de personal se procurará en la medida de lo posible no afectar a los miembros del Comité de Huelga.

*Artículo 3.*— Los paros y alteraciones del trabajo del personal necesario para el mantenimiento de los servicios esenciales determinados en el apartado anterior serán considerados ilegales a los efectos del artículo 16.1 del Real Decreto-Ley 17/1977, de 4 de marzo, en relación con la Ley 8/1980, de 10 de marzo, Estatuto de los Trabajadores.

*Artículo 4.*— Lo dispuesto en los apartados anteriores no significará limitación alguna de los derechos que la normativa reguladora de la huelga reconoce al personal en esta situación, ni respecto a la tramitación y efectos de las peticiones que la motivan.

*Artículo 5.*— Se advierte a los destinatarios de la presente resolución, que el incumplimiento de los servicios establecidos en la misma conllevará por parte de esta Autoridad el ejercicio de las correspondientes acciones penales y administrativas a que hubiere lugar.

*Artículo 6.*— Por el presente Decreto se convalida la resolución dictada por el Consejero de Trabajo y Seguridad Social, de fecha 6 de mayo de 1991.

*Artículo 7.*— El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de mayo de 1991.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
MARTIN AUZMENDI AIERBE.

**1613**

315/1991 DEKRETUA, maiatzaren 14ekoa, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Otsailaren 6ko 15/1991 Dekretuan Lan eta Gizarte Segurantzako Sailari ematen zaizkion egitekoak aldatu ez baldin badira ere, beharrezkoa da, Sail horrek dituen egitekoen garapenerako eta eskuduntza berriak hartzeko bide emango duen eta egon dagoen egitura antolatzea, horretarako, lehengo esperientzia probetxatu behar dela

Horiek horrela, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartu ondoren eta Jaurlaritzak 1991ko maiatzaren 14ean egin zuen bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

**1613**

DECRETO 315/1991, de 14 de mayo, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Seguridad Social.

Si bien el Decreto 15/1991, de 6 de febrero, no ha supuesto una alteración de las funciones atribuidas al Departamento de Trabajo y Seguridad Social, se hace precisa una ordenación de la estructura existente que, aprovechando la experiencia anterior, posibilite el desarrollo tanto de las funciones atribuidas como la asunción de nuevas competencias.

En su virtud, a propuesta del Consejero Titular del Departamento de Trabajo y Seguridad Social, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Gobierno en su sesión de 14 de mayo de 1991,

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA.– XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.*– Otsailaren 6ko 15/1991 Dekretuko 13. atalean ezartzen denaren arabera eta Dekretu honetan agintzen dena kontutan hartuz, honako egiteko eta lan-eremu hauek dagozkio Lan eta Gizarte Segurantza Sailari:

a) Lanari buruzko legeak aplikatzea, lan harremanei dagozkienetan.

b) Enplegu politika eta enplegurako gaikuntza.

c) Ekonomia Soziala: Kooperatibak eta Lan Baltzu Anonimoak.

d) Gizarte Ongizatea.

e) Gizarte Prebisiorako Erakundeak.

f) Gizarte Segurantzako zerbitzuen buru izatea, antolaketa eta administrazioa eta Erakunde horren erregimen ekonomikoa kudeatzea.

g) Laneko Segurtasuna eta Higienea.

h) Erakunde autonomo, Zuzenbide Pribatupeko Izaiki Publiko eta Sailari atxikita edo horren pean dauden Baltzu Publikoen buru izatea, lege eta arautegien arabera.

i) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

*2. atala.*– 1. Aurreko atalean aipatu diren arloei buruzko eskuduntzak bete ahal izateko, honako organu hauek izango ditu Lan eta Gizarte Segurantza Sailak:

A) Goi Mailako Organuak:

1.– Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua.

2. Lan Sailordetza:

2.1. Lan Zuzendaritza.

2.2. Enplegu Zuzendaritza.

2.3. Gaikuntza Zuzendaritza.

2.4. Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza.

3.– Gizarte Segurantza Sailordetza:

3.1. Zerbitzu Zuzendaritza.

3.2. Azterlanen eta Lege Araubidearen Zuzendaritza.

3.3. Gizarte Segurantza Zuzendaritza.

3.4. Gizarte Ongizate Zuzendaritza.

B) Lurraldeko Organuak:

Lurralde Historiko bakoitzeko Lan Sailaren Lurralde Ordezkaritzak.

2. Aurreko puntuan aipatu diren Goi Mailako Organuak baino beheragoko Unitate Administratiboak, Sailburuaren Aginduz garatuko dira.

*3. atala.*– 1.– Honako Baltzu Publiko hauek atxikitzen zaizkio Lan eta Gizarte Segurantza Sailari, Lan Sailordetzaren bidez:

a) Garapen Berezirako Arabako Eremu eta Eskualdeen Akziokako Baltzu Kudeatzailea.

b) Garapen Berezirako Bizkaiko Eremu eta Eskualdeen Akziokako Baltzu Kudeatzailea.

DISPONGO:

CAPITULO I.– DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 13 del Decreto 15/1991, de 6 de Febrero, corresponde al Departamento de Trabajo y Seguridad Social, según lo establecido en el presente Decreto, las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales.

b) Política de empleo y formación para el empleo.

c) Economía Social: Cooperativas y Sociedades Anónimas Laborales.

d) Bienestar Social.

e) Entidades de Previsión Social.

f) Dirección, organización y administración de los servicios de Seguridad Social y gestión de su régimen económico.

g) Seguridad e Higiene en el Trabajo.

h) Dirigir, de acuerdo con las leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado y las Sociedades Públicas adscritas o dependientes del Departamento.

i) Las demás facultades que le atribuyen las leyes y los reglamentos.

*Artículo 2.*– 1. Para el ejercicio de las competencias relativas a las materias señaladas en el artículo anterior, el Departamento de Trabajo y Seguridad Social se estructura en los siguientes órganos:

A) Organos Superiores:

1.– El Consejero de Trabajo y Seguridad Social.

2.– Viceconsejería de Trabajo:

2.1. Dirección de Trabajo.

2.2. Dirección de Empleo.

2.3. Dirección de Formación.

2.4. Dirección de Economía Social.

3.– Viceconsejería de Seguridad Social:

3.1. Dirección de Servicios.

3.2. Dirección de Estudios y Régimen Jurídico.

3.3. Dirección de Seguridad Social.

3.4. Dirección de Bienestar Social.

B) Organos Periféricos:

Las Delegaciones Territoriales del Departamento de Trabajo de cada uno de los Territorios Históricos.

2. Las Unidades Administrativas inferiores de los Organos Superiores previstos en el punto anterior se desarrollarán mediante Orden del Consejero Titular del Departamento.

*Artículo 3.*– 1. Se adscriben al Departamento de Trabajo y Seguridad Social, a través de la Viceconsejería de Trabajo, las Sociedades Públicas siguientes:

a) Sociedad Anónima Gestora de las Areas y Zonas de Desarrollo Especial de Alava.

b) Sociedad Anónima Gestora de las Areas y Zonas de Desarrollo Especial de Bizkaia.

c) Garapen Berezirako Gipuzkoako Eremu eta Eskualdeen Akziokako Baltzu Kudeatzailea.

2.– Horretarako, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuaren proposamenez izandatuko dira, abenduaren 17ko 389/1985 Dekretuko 5. atalean aipatzen diren Administrazio Kontseilu bakoitzeko kideak.

II. ATALBURUA.– SAILBURUA

*4. atala.*– 1.– Ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 26. eta 28. ataletan ezartzen diren eskuduntzak erabiltzea dagokio Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuari eta bai, otsailaren 6ko 15/1991 Dekretuan ezartzen denaren arabera, Sailari dagozkion egiteko eta ekintza eremuan indarrean dauden xedapenek ematen dizkiotenak.

2.– Saileko politika lantzen, Sailburuari lagunduko dion Zuzendaritza Kontseilu bat egongo da. Sailburua izango da Kontseilu horretako buru. Sailburuordeek eta, aztertu behar diren gaien arabera, Sailburuak izenda ditzan pertsonek osatuko dute Kontseilu hori.

III. ATALBURUA.– SAILORDETZAK

*5. atala.*– Artez eta hierarakikoki Sailburuaren pean egongo den Sailburuorde bat izango da Sailordetza bakoitzaren buru. Honako egiteko hauek dagozkio Sailburuordeari:

1.– Sailaren ordezkotza egitea, Sailburuaren delegazioz.

2.– Sailordetzaren ekintzen programazioa, zuzendaritza, koordinakuntza, sustapena eta gainbegiraketa egitea.

3.– Sailordetzaren ekintzetarako arauak eta planak Sailburuari proposatzea.

4.– Sailordetzari atxikita dauden zerbitzuentzako zirkularrak, instrukzioak eta xedapenak ematea, Sailordetzek ongi funtziona dezaten.

5.– Sailordetzari atxikita dauden zerbitzuei buruzko propiektuen proposamenak egitea, material eta giza mailako errekurtsoen beharrak definituko dituela, Aurrekontuen Aurreproiektuak landu ahal izateko.

6.– Sailordetzako Zuzendariek hartutako akordio eta erabakien aurka sar daitezen Gorajotze errekurtsoei ebazpena ematea.

7.– Sailordetzari atxikita dauden zuzendaritzazentruak eta erakundeak ikuskatzea eta horien iharduera kontrolatzea.

8.– Enpresa, izaiki edo korporazioekin akordioak edo hitzarmenak izenpetzea, bakoitzak dituen eskuduntzen eremu barruan.

9.– Eta, oro har, indarrean dauden xedapenek eman diezazkieten egitekoak eta Sailburuak espreski delegatu diezazkienak.

ZUZENDARITZAK

*6. atala.*– Zuzendari bat izango da Zuzendaritza bakoitzaren buru, artez eta hierarkikoki dagokion

c) Sociedad Anónima Gestora de las Areas y Zonas de Desarrollo Especial de Gipuzkoa.

2. A tal efecto, los miembros de sus respectivos Consejos de Administración, a que alude el artículo 5 del Decreto 389/1985, de 17 de Diciembre, serán nombrados a propuesta del Consejero Titular del Departamento de Trabajo y Seguridad Social.

CAPITULO II.– DEL CONSEJERO TITULAR DEL DEPARTAMENTO

*Artículo 4.*– 1. Corresponde al Consejero Titular del Departamento de Trabajo y Seguridad Social el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de Junio y cuantas le atribuye la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento en virtud del Decreto 15/1991, de 6 de Febrero.

2. Presidido por el Consejero Titular, existirá un Consejo de Dirección que le asistirá en la elaboración de la política del Departamento. Formarán parte de este Consejo los Viceconsejeros y aquellas personas que determine el Consejero, en función de los asuntos a tratar.

CAPITULO III.– DE LAS VICECONSEJERIAS

*Artículo 5.*– Al frente de cada una de las Viceconsejerías, y bajo dependencia directa y jerárquica del Consejero Titular del Departamento, habrá un Viceconsejero al que corresponderá el ejercicio de las siguientes atribuciones:

1.– Ostentar la representación del Departamento, por delegación de su Titular.

2.– La programación, dirección, coordinación, impulso y supervisión de las actuaciones de la Viceconsejería.

3.– Proponer al Consejero la normativa y planes de actuación de la Viceconsejería.

4.– Dictar las circulares, instrucciones y disposiciones necesarias dirigidas a los servicios dependientes de la Viceconsejería en orden a su correcto funcionamiento.

5.– Proponer los proyectos de los servicios dependientes de la Viceconsejería, definiendo las necesidades de recursos materiales y humanos, en orden a la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos.

6.– Resolver en Alzada los recursos interpuestos contra los acuerdos y resoluciones adoptados por los Directores de la Viceconsejería.

7.– Inspeccionar y controlar el funcionamiento de los centros directivos y organismos dependientes de la Viceconsejería.

8.– Firmar acuerdos o convenios con empresas, entidades y corporaciones en el ámbito de las respectivas competencias.

9.– Y, en general, cuantas funciones les atribuya el ordenamiento jurídico vigente y las que expresamente les delegue el Consejero Titular del Departamento.

DE LAS DIRECCIONES

*Artículo 6.*– Al frente de cada una de las Direcciones habrá un Director, bajo la dependencia directa y

Sailburuordearen pean egongo dela eta honako egiteko hauek izango dituela:

a) Sailaren ordezkotza egitea, Sailburuaren delegazioz.

b) Zuzendaritzaren barne zerbitzuak eta lan-sistemak antolatzea, Zerbitzu Zuzendaritzak izan ditzan eskuduntza orokorren kaltetan gabe.

c) Zuzendaritzaren ihardunak bultzatzea, horien buru izatea, koordinatzea eta kontrolatzea, goragoko organuek emandako aginduen arabera.

d) Bere eskuduntzapekoak izan daitezen arloei buruzko proposamenak egitea goragoko organuei.

e) Indarrean dauden xedapenek espreski emandakoak edo, Jaurlaritzako Zuzendari guztiei ezarritakoak direlako, guztientzakotasuna duten egitekoak.

f) Datoei buruzko informazio egokiari eustea Zuzendaritzarenak diren arloei dagozkienetan, Azterlanen eta Lege Ataubidearen Zuzendaritzarekin batera.

j) Azterlanen eta Lege Ataubidearen Zuzendaritzarekin batera lan egitea, Zuzendaritzarekin lotura duten azterlan orokorrei buruzko taiuketari eta horiek lantzeari dagozkionetan.

LEHENENGO SEKZIOA.– LAN SAILORDETZA

*7. atala.*– 1.– Lan Sailburuordeari, 5. atalean denentzat ezartzen diren egitekoez gain, honako hauek dagozkio:

a) Lan, segurtasun, lan higiene eta osasunari buruzko ihardunak bultzatzea eta koordinatzea eta, osasunari eta osasun-sorospidetzari dagozkionetan, Osasun Sailarekin batera lan eginez.

b) Enplegu eta enplegurako trebatzeko politikak eta programak lantzea eta horiei buruzko proposamenak egitea.

c) Euskal Autonomi Elkarteko enpleguaren eta enplegurako trebatze-lanen egoera eta bilakaera aztertzea.

d) Gizarte ekonomia arloan eta, bereziki, horren sustapen, horri buruzko aholkuak emate, trebakuntza, kalifikazio, inskribapen eta kontrol arloetan antola daitezen ekintzak indartzea eta koordinatzea.

2.– Honako Zuzendaritza hauek egongo dira Lan Sailordetzaren pean:

– Lan Zuzendaritza.

– Enplegu Zuzendaritza.

– Gaikuntza Zuzendaritza.

– Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza.

*8. atala.*– Lan Zuzendaritzari, 6. atalean denentzat ezartzen diren egitekoez gain, honako hauek dagozkio:

a) Lan harremanei buruzko espedienteak ezagutzea, izapidetzea eta horiei buruzko ebazpenak ematea lehenengo mailan, arlo honi buruzko legeek ematen dizkioten ahalmen guztiak erabiliz.

b) Enplegu erregulazioari buruzko espedienteak ezagutzea, izapidetzea eta horiei buruzko ebazpenak ematea ekainaren 11ko 190/1985 Dekretuan ezartzen

jerárquica del Viceconsejero correspondiente, y que tendrá atribuídas las siguientes funciones:

a) Ostentar la representación del Departamento por delegación del Consejero.

b) La organización de los servicios internos y sistemas de trabajo de la Dirección, sin perjuicio de las competencias generales atribuídas a la Dirección de Servicios.

c) El impulso, dirección, coordinación y control de las actividades de la Dirección, de conformidad con las instrucciones de los órganos superiores.

d) La realización de propuestas, en materias de su competencia, a los órganos superiores.

e) Las que atribuya expresamente el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes, por venir atribuídas con carácter general a los Directores de Gobierno.

f) Mantener la información pertinente sobre los datos estadísticos en materias propias de la Dirección, en colaboración con la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico.

j) Colaborar con la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico en el diseño y elaboración de estudios generales relacionados con su Dirección.

SECCION PRIMERA.– DE LA VICECONSEJERIA DE TRABAJO

*Artículo 7.*– 1. Corresponde al Viceconsejero de Trabajo, además de las funciones que con carácter general se le atribuyen en el artículo 5, las siguientes:

a) Impulso y coordinación de las actividades en materia de relaciones de trabajo y de seguridad, higiene y salud laboral, en coordinación con el Departamento de Sanidad en los aspectos concernientes a la salud y asistencia sanitaria.

b) Elaborar y proponer políticas y programas de empleo y formación para el empleo.

c) Analizar la situación y evolución del empleo y de la formación para el empleo en la Comunidad Autónoma.

d) Impulsar y coordinar las actuaciones en el campo de la economía social, prioritariamente en sus aspectos de promoción, asesoramiento, formación, calificación, inscripción y control.

2.– Dependen de la Viceconsejería de Trabajo las siguientes Direcciones:

– Dirección de Trabajo.

– Dirección de Empleo.

– Dirección de Formación.

– Dirección de Economía Social.

*Artículo 8.*– Corresponde a la Dirección de Trabajo, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 6, las siguientes funciones:

a) Conocer, tramitar y resolver en primera instancia, los expedientes sobre relaciones de trabajo, ejerciendo todas las facultades atribuidas por el ordenamiento jurídico en esta materia.

b) Conocer, tramitar y resolver los expedientes de regulación de empleo en los términos previstos en el Decreto 190/1985, de 11 de Junio, cuando la empresa

denaren arabera, horrek eragina izan dezaneko enpresak Lurralde Historiko batetan baino gehiagotan lantokiak izan ditzanean.

c) Artekotza, ebazpen eta elkarkidetze egitekoak betetzea legeek ematen dizkioten ahalmen guztiak erabiliz eta, oro har, lan gatazka kolektiboak ezagutzea eta izapidetzea, lan gatazka horiek, Lurralde Historiko baten eremua gainditu dezatenean.

d) Martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuan eta indarrean dauden gainontzeko arauetan ezartzen denaren arabera, Hitzarmen Kolektiboen Euskal Autonomi Elkarteko Erregistroaren buru izatea eta kontrolatzea eta Hitzarmen Kolektiboak egiteari buruzko espedienteak izapidetzea ere bai.

e) Greba eskubidea Euskal Autonomi Elkartean erabiltzea eman dadinean, biztanlegoak behar dituen funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko xedapen-proposamenak izapidetzea.

f) Datoei buruzko informazio egokiari eustea Zuzendaritzarenak diren arloei dagozkienetan, Azterlanen eta Lege Araubidearen Zuzendaritzarekin batera.

g) Lurralde Ordezkaritzen buru izatea, horiek koordinatzea eta horien gainbegiraketa egitea, beroien eskuduntzapeko diren arloetan beste Zuzendaritza batzurekin izan ditzaketen menpekotasun funtzionalen kaltetan gabe.

h) Lurralde Ordezkaritzek hartutako akordio eta erabakien aurka sar daitezen Gorajotze errekurtsoei ebazpena ematea, bere agintepekoak diren arloei dagozkienetan.

i) Lan legeak hausteagatik eta eragozpenak sortzeagatik zigorrak ezartzea, 2.000.000 PTAko zenbatekora arte.

j) Xedapen orokorrei buruzko proposamenak egitea, bere eskuduntzapeko arloei dagozkienetan.

k) Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoko 4. atalean, 19/77 Legean eta Langileen Estatutuari buruzko Legeko 75. atalean jasotzen diren bulego publikoaren eskuduntzak erabiltzea Euskal Autonomi Elkartearen barruan.

l) Lan istripuei eta gaisotasun profesionalei aurre hartzeko politika finkatzea, osasun eta osasunketa-sorospengintzari dagozkion aldeetan, Osasun Sailarekin batera lan eginez.

m) Laneko Segurtasun, Higiene eta Osasuna sustatzea, arloari buruzko ekintza, trebakuntza eta informazio planak ezarriz osasun eta osasunketa-sorospengintzari dagozkionetan, Osasun Sailarekin batera lan eginez.

n) Laneko Segurtasun eta Higieneko Lurralde Kabineteetako buru izatea, legeek ematen dizkioten ahalmen guztiak erabiliz bere eskuduntzen eremu barruan eta urtarrilaren 28ko 43/1986 Dekretuan ezartzen denaren arabera, Lurralde Ordezkaritzei, zerbitzu-aginduen arabera, dagozkien eskuduntzen kaltetan gabe.

ñ) Segurtasun eta Higieneko Kabineteen ihardunak planifikatzea, koordinatzea eta ebaluatzea.

afectada tenga centros de trabajo en más de un Territorio Histórico.

c) Ejercer las funciones de mediación, arbitraje y conciliación ejecutando todas las facultades atribuidas por el ordenamiento jurídico vigente y en general, el conocimiento y tramitación, cuando excedan del ámbito de un Territorio Histórico, de los conflictos colectivos de trabajo.

d) Regir y controlar el Registro de Convenios Colectivos de Euskadi, en los términos previstos en el Decreto 39/1981, de 2 de Marzo, y demás normativa vigente, así como la tramitación de los expedientes de extensión de los Convenios Colectivos.

e) Tramitar la propuesta de disposiciones para garantizar el mantenimiento de los servicios esenciales de la comunidad, con ocasión del ejercicio del derecho de huelga, en el ámbito de la Comunidad Autónoma.

f) Mantener la información pertinente sobre los datos estadísticos en las materias propias de la Dirección, en colaboración con la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico.

g) Dirección, coordinación y supervisión de las Delegaciones Territoriales, sin perjuicio de las dependencias funcionales de éstas respecto a otras Direcciones en áreas de su competencia.

h) Resolver los Recursos de Alzada interpuestos contra los acuerdos y resoluciones adoptadas por las Delegaciones Territoriales, en las áreas cuya competencia le corresponda.

i) Imponer sanciones por infracción de la legislación laboral y actos de obstrucción hasta la cuantía de 2.000.000 de PTA.

j) Elaborar las propuestas de disposiciones generales del ámbito de su competencia.

k) Ejercer las competencias de oficina pública contempladas en el artículo 4 de la Ley Orgánica de Libertad Sindical y Ley 19/77, así como por el artículo 75 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, en el ámbito de la Comunidad Autónoma.

l) Fijar la política de prevención de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales, en coordinación con el Departamento de Sanidad en los aspectos concernientes a la salud y asistencia sanitaria.

m) Promocionar la Seguridad e Higiene y Salud Laborales, estableciendo planes de actuación, formación e información relacionados con la materia, en coordinación con el Departamento de Sanidad en los aspectos concernientes a la salud y asistencia sanitaria.

n) Dirección de los Gabinetes Territoriales de Seguridad e Higiene en el Trabajo, ejecutando todas las facultades atribuidas por el ordenamiento jurídico dentro de su ámbito competencial y según lo dispuesto en el Decreto 43/1986, de 28 de Enero, sin perjuicio de las competencias que les corresponde a los Delegados Territoriales en función de las pertinentes órdenes de servicio.

ñ) Planificación, coordinación y evaluaciones de las actividades de los Gabinetes de Seguridad e Higiene.

*9. atala.*– Enplegu Zuzendaritzari, 6. atalean denentzat ezartzen diren egitekoez gain, honako hauek dagozkio:

a) Enplegua sustatzeko neurrien ebaluaketa eta plangintza egitea.

b) Enplegu programei dagozkien espedienteak izapidetzea eta horiei ebazpena ematea.

c) Lan Merkatuaren joerak aztertzea eta horien ebaluaketa egitea.

d) Izaiki Publiko eta Pribatuekin Hitzarmenak egiteko proposamenak lantzea.

e) Lurralde Ordezkaritzek hartutako akordio eta erabakien aurka sar daitezen gorajotze errekurtsoei ebazpena ematea, bere agintepekoak diren arloei dagozkienetan.

f) Beste Sail batzurekin batera lan egitea, enpleguari eusteari eta hori sustatzeari dagozkienetan.

*10. atala.*– Gaikuntza Zuzendaritzari, 6. atalean denentzat ezartzen diren egitekoez gain, honako hauek dagozkio:

a) Lanbidezko Trebakuntzaren estrategiaren taiuketa eta plangintza eta gaikuntza hori lortzeko behar diren baliabideak eta sistemak egituratzea.

b) Lanbidezko Gaikuntzako politiken emaitzen jarraipena egitea, horiek kontrolatzea eta ebaluatzea.

c) Estrategien plangintza eta enpresaren kudeaketa berritzeko prozesuak, Enplegu Zuzendaritzarekin batera lan eginez.

d) Izaiki Publiko eta Pribatuekin Hitzarmenak egiteko proposamenak lantzea.

e) Lurralde Ordezkaritzek hartutako akordio eta erabakien aurka sar daitezen gorajotze errekurtsoei ebazpena ematea, bere agintepekoak diren arloei dagozkienetan.

*11. atala.*– Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzari, 6. atalean denentzat ezartzen diren egitekoez gain, honako hauek dagozkio:

a) Gizarte Ekonomiako Izaikiak, Kooperatibak eta Akziokako Lan Baltzuak indartzeko eta sustatzeko planak eta Elkarte horien bateraketa-egiturak lantzea eta betetzea, Enplegu Zuzendaritzarekin batera lan eginez.

b) Gaikuntza programen kudeaketa gizarte ekonomiari dagozkionetan, Gaikuntza Zuzendaritzarekin batera lan eginez.

c) Gizarte ekonomiako enpresei buruzko legeak betetzen diren fiskalizatzea.

d) Kooperatiben eta Akziokako Lan Baltzuen Erregistroa.

e) Gizarte ekonomiako enpresen erregistro-estatistika lantzea eta ebaluatzea.

f) Lurralde Ordezkaritzek hartutako akordio eta erabakien aurka sar daitezen gorajotze errekurtsoei ebazpena ematea, Kooperatibei eta Akziokako Lan Baltzuei dagozkienetan.

g) Kooperatibei buruzko legeak hausteagatik zigorrak ezartzea, 1.000.000 PTAko zenbatekora arte.

*Artículo 9.*– Corresponde a la Dirección de Empleo, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 6, las siguientes funciones:

a) Evaluación y planificación de las medidas de promoción de Empleo.

b) Tramitar y resolver los expedientes correspondientes a los programas de Empleo.

c) Análisis y evaluación de las tendencias del Mercado de Trabajo.

d) Elaboración de las propuestas de Convenios con Entidades Públicas y Privadas.

e) Resolver los recursos de alzada interpuestos contra los acuerdos y resoluciones adoptados por las Delegaciones Territoriales, en las áreas cuya competencia le corresponda.

f) Coordinación con otros Departamentos en materia de mantenimiento y promoción del empleo.

*Artículo 10.*– Corresponde a la Dirección de Formación, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 6, las siguientes funciones:

a) Diseño y planificación de la estrategia de Formación Ocupacional y estructuración de los recursos y sistemas educativos adecuados para su ejecución.

b) Seguimiento, control y evaluación de los resultados de las políticas de Formación Ocupacional.

c) Planificación de las estrategias y procesos para la innovación de la gestión empresarial en coordinación con la Dirección de Empleo.

d) Elaboración de propuestas de Convenios con Entidades Públicas y Privadas.

e) Resolver los recursos de alzada interpuestos contra los acuerdos y resoluciones adoptados por las Delegaciones Territoriales, en las áreas cuya competencia le corresponda.

*Artículo 11.*– Corresponde a la Dirección de Economía Social, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 6, las siguientes funciones:

a) Elaboración y ejecución de los planes de fomento y promoción de las Entidades de Economía Social, Cooperativas y Sociedades Anónimas Laborales, así como de sus estructuras asociativas, en coordinación con la Dirección de Empleo.

b) Gestión de los programas de formación en el ámbito de la economía social en coordinación con la Dirección de Formación.

c) Fiscalizar el cumplimiento de la legislación sustantiva sobre empresas de economía social.

d) Registro de Cooperativas y Sociedades Anónimas Laborales.

e) Elaboración y evaluación de la estadística registral de las empresas de economía social.

f) Resolver los Recursos de Alzada interpuestos contra los acuerdos y resoluciones adoptados por los Delegados Territoriales en materia de cooperativas y Sociedades Anónimas Laborales.

g) Imponer sanciones por infracciones de la legislación de cooperativas hasta la cuantía de 1.000.000 de PTA.

h) Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren buru izatea.

II. SEKZIOA.– GIZARTE SEGURANTZA SAILORDETZA

*12. atala.– 1.–* Gizarte Segurantza Sailburuordeari, 5. atalean denentzat ezartzen diren egitekoez gain, honako hauek dagozkio:

a) Plangintza eta programazioko egiteko orokorrak, kudeaketa, azterlan, aholkularitza tekniko eta juridiko eta laguntza informatiko mailako prozedurak gidatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea.

b) Ekonomia-finantzaketa kudeaketa, ondare eta aurrekontu kudeaketa, azpiegituraren antolaketa, Saila eta honen lurralde-dependentziak baliabide materialez hornitzeari buruzko barne-erregimen zerbitzuen buru izatea, bultzatzea eta koordinatzea.

c) Saileko langilegoaren politika gidatzea, horren pean dagoen Administrazio Instituzionalekoak barne. Horretarako, agindu orokorrak eta bereziak eman ahal izango ditu, bateratasunean bultzatu eta garatu ahal izateko, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailarekin batera lan eginez.

d) Sailaren ihardueraren buru izatea eta koordinatzea, Estatutuaren garapenari buruzko arloetan.

e) Sailaren argitalpen-politika gainbegiratzea, koordinatzea eta ebaluatzea.

f) Sailaren aurrekontuen aurreproiektua lantzea.

g) Gizarte Segurantzaren eta horren Ekonomi Araubidearen kudeaketaren zuzendaritza, antolaera eta administrazioa gainbegiratzea, Ogasun eta Finantza Sailak dituen eskuduntzen kaltetan gabe.

h) Gizarte Segurantzaren informazio ekonomikoa biltzea, aztertu, batu eta ziurtatu ahal izateko, Ogasun eta Finantza Sailak dituen eskuduntzen kaltetan gabe.

i) Ihardunak programatzea, Gizarte Segurantzari eta Borondatezko Gizarte Prebisiorako Entitateei dagozkienetan.

j) Gizarte zerbitzuetan lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuen ekintzak planifikatzea, sustatzea eta koordinatzea.

k) Ongintzarako Iraskunde eta Elkarte partikularren lanak sustatzea eta horiei laguntza eskaintzea.

l) Erabaki guztien gainbegiraketa egitea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baino lehen.

2. Honako Zuzendaritza hauek egongo dira Gizarte Segurantza Sailordetzaren pean:

